

EURIA

Amaia Iturriotz Etxaniz, 16 urte

Urretxu

Abenduko hirugarren larunbatean oso zakur zebilen eguraldia. Donostian zortzi metrotarainoko olatuak zaplazteko latzak ematen ari zitzaizkion Pasealeku Berriari eta Oriako nahiz Nerbioiko urek gainez egin zuten zenbait lekutan. Mendi inguruko auzo galdu hartan ere ez zen giro. Ipar-ekialdeko haizeak, suge ikusezina bailitzan, pinuak orrazten ziharduen. Bortizki, amak Sarari txirikordak atontzen zizkionean bezalatsu, neskatilaren ipuinetako printzeek herriko mutilen antzik ez zuten garaietan. Pinuek soilik luzituko zituzten txirikordak arratsalde hartan, gainerako zuhaitzek minbizia edo negua pairatu ohi baitzuten urteko garai horretan. Eta lizar ilegorri bakan batzuk salbu, orrazi bilakatzen ziren arbola guztiak. Haizearen urte osoko bortizkeria mendekatu nahi izaten zuten, baina sugeak zirrikitu txikienetatik ere igarotzen dira, baita orrazienetatik ere.

Zerua buru gainera erortzearen beldur baizik ez omen ziren Asterix eta Obelix. Opel Corsa CDTI urdinari ere izua sortzen zion zaparrada indar-

tsuak, atmosfera agian ez, baina hidrosfera osoa gainera zetorkiola uste baitzuen. Horregatik, autoaren motorraren dardara beti gisakoa izanik ere, munduak ikararen ondorio zela pentsatu zuen. Ostetik, negarrak etorri ziren. Malko gezaz hezetu zitzaizkion leihatilak. Tantzaz tanta osatzen omen da ibaia. Ibaiak pluralean, leihatila bakoitzean Euskal Herriko erreka guztiak eta gehiago ikus baitzitezkeen, gainez egin zuten Oria nahiz Nerbioi ere bai.

Opelaren barrunbea goxo zegoen, kalefakzioak barne-prozesu ororentzat egokia zatekeen hogeita bat gradutako tenperatura ahalbidetzen zuen-eta. Barruan geldia, bi bihotz. Lehena, gidariaren aulkian eserita, eskuak bolantean *loctitez* itsatsirik. Alboan, berriz, beste bihotz bat, txikiagoa. Haren eskuak elkartuta zeutzan izter bien gainean, lo baleude bezala, ustez lasai. Bi bihotzen begi-ninietan ez zen deus islatzen, arimak ezereza besoen artetik askatu nahi ez balu gisan. Artean, euri-tantak alboratzen zebiltzan haizetako-garbigailuek bekaitz handiz begiratzen zieten biei, euren mugimendu himnotikoak erantzunik ez jasotzera ohituta ez zeudelako.

Euria auto urdinari kolpeka Donostiako danborradan, haizea orrazien zirrikietan zehar, pinudia ile-apaindegian... Film erromantiko bateko soinu banda euren esku zeukaten arren, isiltasun ezerosoa zen gehien entzuten zena. Sarak bazekien Iñigorekin orduak eman zitzaizkeela hitz erdirik esan gabe eta horretarako beharrik sentitu gabe.

Erikekin zegoenetan, ordea, igogailuan topo egin zuten bi bizilagun imajinatzen zituen. Eta eguraldiaz zer edo zer esatekotan zenean, euriaz mintzatu berri zirela oroitu zuen. Gai egokiren bat otu baino lehen, ezerosotasun jasangaitzak hitzak ahotik bidali zizkion okada bakar batez:

–Zer moduz futboleant? –bi izan ziren tiroak: bata, erantzunak garrantzirik ez zuen galdera formulatzea eta bestea, aurpegira begiratzea protokoloak hala agindu hutsagatik.

–Bada, ondo, bai, ondo; laugarren goaz–. hitzon azken hatsarekin batera, amildegia sortu zen bien oinetan, bai baitzekiten berriro ere isilune nardagarri berberak irentsiko zituela.

Horregatik, aireari arnasa hartzen utzi aurretik musu eman zioten elkarri, zehaztasun handiz neurturiko lepo-mugimendu batez. Hortik aurrera zen guztia, ez zen.

Sararen hatzek goxo laztandu zuten Eriken bisaia, deskubritu berri zuten kontinentea balitz bezala. Larunbatero konkistatzen zuen Amerika. Erikek gerritik heldu zion lehenbizi, eta eskua nekaren kamisetaren azpitik paseatu zuen gero. Parentesia ireki. Autoko aulkien atzeak etzan. Parentesia itxi. Zaparradaren zalapartari hasperenak gailendu zitzaizkion. Eriken hatsak eskuineko leihatilan bihotz forma marraztu zuen, segundo gutxitan desagertzen zen bihotza. Behin, bitan, zazpitan... Kristaleko azken hats arrastoa lurrundu zen arte.

Erantzitako arropa jantzi eta jantzitako fantasia erantzi zuten. Eserlekuak behar bezala ipini zituzten. Eskuak bolantean berriro. Begi-niniak aurrera begira ezer ikusi gabe. Isiluneari, ordea, iragan hurbileko oroitzapen lizun bezain gozoek josten zizkioten ezpainak. Samurtasun handiz gurutzatu zituzten begiradak eta irri bana oparitu zioten elkarri. Zehaztasun handiz neurtu gabeko irriak izan ziren, espontaneoak.

–Jaitsiko gara herrira? –eskuez bere ile nahasiak orrazteari ekin zion Sarak, honezkero berrehun mila Pipi Kaltzaluzek adina txirikorda izango zituzten pinuen inbidiaz.

–Ados! –bolantea ezkerrerantz biratu zuen. Beherakoan, hitz aspertuak–. Non utziko zaitut, etxean ala hemen, taberna inguruan?

–Gelditu hementxe –poltsa jaso zuen Sarak lurretik.

–Hemen? Baduzu aterkirik? Eramango zaitut aurrerago –ez zen autoa geratu.

–Gelditu –bazirudien hitza bera izan zela balazta eragin zuena –arkupeak daude hemendik tabernetara. Badakizu Iñigoren koadrilakoak inguru haue-tan ibiltzen direla.

Sara autotik irten zen. Lauzpabost urrats bizi eman zituen arkupeetara iristeko. Erik so geratu zen neskaren irudia urrunean nola txikitzen zen. Segundotik segundora saiheitsak gero eta gehiago uzkuratzen zitzaizkiola iruditzen zitzaion, eta ez, Sarak ez zuen atzera begiratu. Bere baitatik kolpetik ateratzera behartu zuen atzeko kotxearen bozi-

na hotsak. Bazirudien Sararen adatsaren dilinda haizetako-garbigailuen mugimendu sinkronizatua baino himnotikoagoa zela berarentzat.

*...ta nun izkututzen zinen orain arte
urte luzeegi hauetan agertu gabe
helduidazu eskutik estu arren
ilun dago ta ez dakin bueltatzen...*

Berri Txarrak taldearen kantu ederrenetako bat entzun zitekeen tabernan, Sarari hainbeste gustatzen zitzaiona, baina azken bi hilabeteetan entzuteko gai ez zena. Aitzol eta Joseba barraren ertz batean ikusi zituen. Han behar zuen Iñigok ere.

Ezpainez esan zion kaixo. Gero, ordura arte etxean sartuta nola egon zitekeen itaundu zion, ea ez ote zen aspertzen. Sarak ezetz erantzun zion, eta aspertzen zena bera izango zela, larunbatero gauza bera galdetzen zion-eta. Josebak kaña bat gehiago eskatu zion tabernariari.

Atsedetik hartzen ez zuen euria aipatu zuten hurrena. Ez, ordea, elkarri zer esan ez zekitelako, biharamunean mendira joateko zeukaten plana bertan behera utzi beharko zutelako baizik. Iñigoren zigarroaren keak ito zuen neskaren sexu usaina. Urte eta erdi lehenago ez zukeen berehalakoan pentsatuko Iñigoren alde txar bakanetakotzat zekusan tabakoaren keari mesede bat zor izango zionik.

Aitzolek goiko tabernara joatea proposatu zuen. Naroa, Josebaren neska-laguna, betiko sermoiarekin hasi zen, musika txarra jartzen zutela eta ez

dakit zer gehiago. Inork ez zion jaramonik egin eta kale aldera abiatu ziren.

–Sara, ez al duzu aterkia hartu behar? –galdetu zion Iñigok berokiaren txanoa janzten zuen bitartean.

–Nik ez dut aterkirik ekarri –begi biak zabalzabalik begiratu zion, biblia japoniarrez irakurtzen ari den abade bati begiratuko liokeen modu berean.

–Nola ezetz? Hortaz, nola etorri zara busti gabe zure etxetik hona? –galdegin zion mutilak itaunak Sararengan sortu zuen bertigoaz oharkabe.

–Ai, ni bai tuntuna! Aterki berrira erosi eta euritako-ontzian, besteen artean, ezagutu ez! –Izerdi hotzak hezetu zituen eskuez tabernako aterkietako bat hautatu zuen. Morea. Esperantzaren berdea gezurtiegia iruditu zitzaion. Barre egin zuen Iñigok eta halabeharrez, beste irriño batekin ihardetsi zion berak. Gutxienez hamazazpi mendi erru-siar zebilzkion sabelean. Orduantxe sentitu zen iruzurti bi hilabetean lehenengo aldiz.

Dardarti zabaldu zuen euritako morea, zeina Iñigok berehala kendu baitzion eskuetatik, altuenak eramatea hobe zela esanez. Besotik heldu eta ahal bezainbat arrimatu zen mutilaren gorputzera, inoiz egia biluztuz gero, barka ziezaion erregutuz edo. Gora so egin zuen segidan, zeruari ere barkamena eskatu nahian apika, baina ez zuen oskarbirik topatu, ezta zeru euritsu bezain ilunik ere. Aterkiaren oihal morea. Besterik ez.

Estalpe horrek ireki zizkion begiak, edo gehiago itxi beharbada. Konturatu zen tabernako euritako-ontzitik norbaiti ebatsi zion zera ezdeus hark ataka estutik irteten lagundu ziola, bere gezurretatik babestu zuela, alegia. Supituki, arimaren hegaldatze bat-batekoari esker, bost metro goragotik ikusi zuen bere burua.

Neska beltzaran bat zen pentsakor, ile iluna sorbaldatan beheara erortzen zitzaioarik. Begi txiki-txikiak zeuzkan aurreko gazte koadrilari zuzenduak, baina haizetako-garbigailuekin gertatu bezalaxe, ez zitzaion haien irudia betile artean islatzen. Finak zituen eskuak, pare bat eraztunez apainduak, baina batez ere hotzak, izerdiak ez zuelako lurruntzeko okasiorik izaten abenduko iluntzeetan.

Alboan zihoakion mutilak, aitzitik, bero zituen eskuak. Sudurraren punta gorri-gorri eginda jarri zitzaion tabernatik irten orduko eta eskuineko hatzez berau inguratu eta epeltzeko tentazioa bazuen ere, nahiago zuen berotasun hori neskari eskaintzea. Eskuineko besoaz inguratzen zuen albokoa eta bere bularraldera estutzen.

Beste eskuaz irmo eusten zion aterki more bati, zeinak bikotea errealitatetik babesten baitzuen. Bitartean, oihal ubela kolpatzen ziharduten neskaren engainu nahiz gezurrek. Larunbat arratsaldeetan etxean ikusten zituen filmak ziren euri. Jaso orduko ezabatzen zituen mugikorrek mezuak ziren euri. Behar baino gehiagotan erantzitako kulero gorriak ziren euri. Azken bi hilabeteetan entzutea zail zitzaizkion Berri Txarrak-en abestiak

ziren euri. Aterkia ezinbestekoa bihurtu zitzaien, bihotzak lehor mantentzekotan.

Itxi zuten euritakoa, goiko tabernak ere sabaia bazuelako. Halaxe jardun zuten ordu luzez, zulotik zulora, kañatik kañara. Denek oso ongi pasa zuten, Sarak ere bai.

Pare bat hilabete geroago, larunbata zen berriro. Ez zen zaparradarik, ez haize bortitzik, lainoa, lainoa soilik. Mendi aldeko auzo galduan Opel urdina errealitate lausoa baino ez zen, biek ere, zena-
ren eta ez zenaren arteko muga non zegon zalan-
tzan jartzeraino. Duda bientzat berbera bazen ere, Sarari ez zion minik egiten, Eriki bai. Horregatik, betiere eskuak bolantearen gainean pausaturik, hala esan zion neskari:

–Sara, zer egingo duzu? –ahoa zabaltzeaz bat ohartu zen ez zituela hitz egokiak aukeratu.

–Nola zer egin? Gauean? –ez zitzaion burutik para Erikek nora iritsi nahi zuen.

–Ez, hau guztiarekin, esan nahi dut –aurrera begira jarri zen, erreakzioa ikusi nahi ez zuelako.

Sarari gihar oro tenkatu zitzaion eta berak ere, aitzinera zuzendu zuen soa. Isilunea sortu zen, baina ezerosotasuna baino gehiago, tentsioa, galdera ikurrak eta Iñigo arnas zitezkeen. Zenbait segundo amaigaberen ostetik, apal mintzatu zen:

–Ez al gaude ondo? –ez zuen jakin beste ezer erantzuten. Gero, isilunea.

–Ez dakit –bota zuen suabe, bista bolantetik apartatu gabe. Bezekien, beste behin ere, ez ziola esan nahi zionaren herenik ere esango.

–Hasi ginenean ez zitzaizun Iñigo axola, zer aldatu da? –bazekien erantzuna.

–Dena –begietara begiratzen ausartu zen, umil, halere –lehenago sexua besterik ez zen, orain... Orain askoz gehiago da.

–Ezin dut erabaki.

Pum! Tiro! Berunezko bilakatu zen airea, marmolezko beraiek. Eta gehiegizko presioak harri biak metamorfismo pentsaezin batez hautsiko zituela zirudienean, elkar besarkatu zuten. Minutu batzuk eman zituzten elkar hartuta negarrez. Baina isilik, malkoak isuri orduko lurrun zitezen eskatuz munduari; Opel urdin hartan bihotza bezain gorri ziren malkoek ez zutelako lekurik.

Ordu bete baino lehen herrira bidean ziren dagoeneko, arratsalde hartan eserlekuen atzeak etzan beharrik izan gabe jarri baitzitzaien oilo-ipurdia. Betiko tokian geratu zen autoa, tabernen gunea baino bi kale atzerago. Berokia jantzi zuen Sarak Eriki maitekiro musu eman baino lehen. Poliki-poliki aldendu zituen bere ezpainak mutilarenetatik eta aurpegia laztandu zion, Amerika zapaltzen zuen azken aldia izan zitekeenaren jakitun.

–Erabakiko dut.

Ohitura zenez, Sara nola urruntzen zen begira geratu zen Erik. Oraingoan bai, burua biratu zuen atzeko autoak bozina jo aurretik. Sarak, bestalde, Mariarekin topo egin zuen Erikek azeleragailua zanpatu eta segundo gutxira. Iñigoren arreba nagusiaren laguna zen Maria, neska jatorra oso.

Eta ikusi bazuen? Iñigo guztiaz konturatuko balitz, zer? Beti bezain adeitsu agur egin zion eta Sarak irribarre batez erantzun. Ez, ez zen ezertaz konturatuko.

Goiko tabernan elkartu zen Josebaren neskalagunarekin. Naroak eta biek ebaki bana hartu zuten lasai, betiko gaiei buruz solasean. Momentu hartan, ordea, Iñigoren gustuko janariez edo bere kirolzaletasunaz mintzatzeak min egiten zion. Naroak antzeman zion zer edo zer gertatzen zitzaiola eta ea amona gaixo samar zebilelako zen galdetu zion. Azken aldian pattalago zebilen, bai, baina ez zen ezer kezkarria. Dena den, Sarak ezin izan zion eskura jarri zioten aitzakiari muzin egin.

Hariari jarraiki, zahartzaroari buruz segi zuten hizketan. Honi diogun beldurra izan behar geniokeenetz eztabaidatzen ari zirenean, Sararen mugikorrak jo zuen.

–Iñigoren mezua da –bere golkorako irakurri zuen: *Ahal duzunean zatoz nire etxera, zurekin hitz egin nahi dut.*

–Zer, Sara? –minutu erdi zeraman dagoeneko telefonoaren pantailari begira.

–Ez, ezer ez, bere etxera joan behar dudala –irribarre behartu batez lagundu zien hitzoi eta berokia arrapaladan jantzi zuen–. Gero egongo gara, ados?

Pausu biziz aldendu zen bai ebakia eta bai Naroarekin zuen elkarrizketa amaitu gabe utzirik. Artean, Hertzainak taldearen abesti batek giroten zuen taberna.

*... ohartu gabe arrunt bilakatuta
ohartu gabe heldu gara mugara
mundua jausi zaigu gainera,
maitia, lehen baino lehen aska gaitazan...*

Kalean euria ari zuen. Sarak etxean ahaztu zuen
aterkia, edo Opel urdinean akaso, ez zegoen ziur.
Eta egiak busti egiten du.